



56. Durangoko Azoka egin egingo DA!

Jaurlaritzak oraintsu ezarritako osasun neurriak kontuan hartuta, Gerediagak aurrez aurreko azokari eutsiko dio. Abenduaren 4tik 8ra bitartean, egunean bost txanda egongo dira Landako bisitatzeke; hitzordua hartu beharko da Durangoko Azokaren webgunean; Ahotseneako kontzertuetarako ere izena eman beharko da. **24**

Ziklo-krosa protagonista izango da asteburuan Durangaldean, Garaiko eta Abadiñoko probekin

Proba biak asteburu berean batu dituzte aurtan. Garaikoa zapatuan izango da eta aurtengoa bigarren edizioa izango da. Domekan, Abadiñoko Muntzaratz auzoan batuko dira estatuko ziklo-krosleririk onenetarikoak. Mailarik maila, aurreko postuetan lehiatzeko kapaz diren hainbat ziklista dago Durangaldean. **27**



Emakumeen lasterketa egingo dute bihar Durangon

Emakumeen Lasterketak bosgarren aldia beteko du zapatuan. Aldarrikapenak elkartasunagaz uztartuz, aurtan, indarkeria sexista jasandakoei laguntzen dien Bizitu elkarteari emango diote baturiko diruaren zati bat. Lehenengo, proba ez lehiakorra egingo dute; ondoren, 17:00etan, lasterketa nagusia hasiko da. **27**





ALKIMAX
Alquilamos soluciones

BERRIZ
Eitua industriagunea, 71C
Tel.: 946 824 550

GERNIKA
Goiko Ibarra, 26
Tel.: 946 271 310



alkimax@alkimax.net / www.alkimax.net



FAROLAK



INFRAGORRIAK



AIRE KANOIA



ERRADIADOREAK



HEZETASUN KENGAILUAK



MOTOBONBAK



BONBA URPERAGARRIAK



Gabon ingurua salerosketa sasoia izaten da.

Tokiko merkataritzan euskararen erabilera bultzatuz

Durangaldeko lau udalek bat egin dute 'Betikoa, gertukoa. Eskatu euskaraz, eskaini euskaraz' kanpainagaz

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Merkataritzan euskararen erabilera bultzatu guran, Durangaldeko hainbat udalek *Betikoa, gertukoa. Eskatu euskaraz, eskaini euskaraz* kanpainagaz bat egin dute. Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko ekimenak euskararen erabilera konfiantzagaz lotzen du merkataritzaren testuinguruan. "Tokiko merkataritzak berezkoak dituen gertutasunak eta betikotasunak konfiantzazko hartu-eman sortzen dute. Era berean, hartu-eman horrek kalitateagaz lotura dauka, bai produktuarena eta baita hartu-emanena ere", azaldu dute egitasmoaren bultzatzaileak. Durangaldean lau herrik bat egin dute kanpainagaz: Durangok, Zornotzak, Berrizek eta Zaldibarrek.

Durangoren kasuan, Fernan Ruiz Barbaro euskara elkarteko eta Durangoko Udaleko dinamizatzaileak dioenez, komertzioetako egoera orokorraren argazkia egitea oso gatxa da, ez delako sekula ikerketarik egin. "Hala ere, sentsazioa daukat azken urteetan nabaritzen dela aldaketa. Gaur egun, paisaje linguistikoa euskaldunagoa da", dio Ruizek. "Komertzio handietan gabezia nabaritzen da, baina dendari txikiak ahalegina egiten dabiltzala nabaritzen da. Merkatarik elkarteko langileak denak dira euskaldunak, eta eredu izateak badu eragina", nabarmendu du Ruizek. Ahozkoari dagokionez, belaunaldi berri bat merkataritzan eta ostalaritzan

lanean dabil. Euskaraldian lan handia egin zuten komertzioan eta ostalaritzan, euskararen erabilera bultzatu eta hizkuntza ohiturak aldatzeko. "Durangon merkataritza oso bizia da. Euskaralditik ibili ginen dendarik denda. Uste dut horrek ere hondarren bat utziko zuela", dio Barbaroko langileak.

Fernan Ruiz: "Sentsazioa daukat azken urteetan nabaritzen dela aldaketa merkataritzan"

Zaldibarren kasuan, Inma Eguen euskara teknikariak dioenez, Zaldibarko komertzioetan euskararen erabilera altua da orokorrean. Udalak merkatarik eta ostalariei merkataritza gida banatu zien, webguneak euskalduntzeko zein itzulpenetarako laguntzak daudela gogoraraz-

M. Gerenabarrena: "Merkataritza erdaragaz lotzen da, eta horixe da aldatu behar dena"

teko. Langile euskaldunen bila badabiltza, Lansarean webgunea ere hor dagoela gogorarazten diegu", azaldu du. Gainera, Hirigintza Sailagaz hartu-eman zuzena dute. "Denda berriren bat zabal-

du gura duenari ere informazioa helarazten diogu. Negozioa zabaldu aurretik zer edo zer gura badute lagundu egiten diegu", gaineratu du Eguenek.

Zornotzan, komertzioan eta ostalaritzan euskararen erabilera kalekoaren isla dela dio Aritz Escandon euskara teknikariak. "Zornotzan %56 euskalduna da, eta %17,5 ia euskalduna. Kaleko erabilera, ostera, %21ekoa da. Zornotzan 92 taberna-jatetxe eta 212 denda daude. Gainera, Arratiatik eta Durangaldetik bezero ugari heltzen da. "Merkataritzan euskararen erabilera aztertzeko ikerketa egiteko asmoa dugu laster", gaineratu du euskara teknikariak.

Berriren dendaririk gehienek euskaraz berba egiteko gaitasuna dutela azaldu du Maite Gerenabarrena teknikariak. "Herri txikia izateak aukera ematen digu merkatariekin hartu-eman zuzena izateko, eta orokorrean euskaldunak dira. Merkataritza erdaragaz lotzen da askotan, eta horixe da aldatu behar dena. Berriren, kartelagaz batera pegatina ipini dugu, identifikagarria izan dadin. Gure kasuan, denda berriak zabaldu dira eta bertoko gazteek zabaldu dituzte. Horrek bultzada emango dio bai merkataritzari eta baita euskararen erabilerari ere, kanpotik herrira datozenek ere identifikatu ahalko dituztelako", gaineratu du Gerenabarrenak.

Ari direnak



ASIER
ARRIETA

MAKAWA. Durango

Hizkuntza ohituren inguruan, zein esperientzia duzu zure denda?

Euskararen erabilera gehiago igartzen dut gazteen artean. 50 urtetik behera-koen artean ohikoagoa izaten da. Hortik gora ez hainbeste.

Denda lehenengo berba euskaraz esaten duzue?

Bai, normalean lehenengo berba euskaraz esaten dugu. Batzuetan gertatzen zaigu bezeroa gugana erdaraz zuzentzea, baina "Aupa, egun on" esanda euskarara pasatzea. Bezero batzuek ohitura dute komertzioetan lehenengo berba erdaraz esateko, euskaraz jakin arren.

Durangon merkatari belaunaldi berri batekoa zara. Urte batzuetatik hona, igarri duzu alderik hizkuntza ohituretan?

Bai. Belaunaldi berriok uste dut gehiago fijatzen garela horretan. lehenengo berba euskaraz esaten adibidez, horrek kate bat sortzen duelako. Euskararen erabilerari garrantzi handiagoa ematen diogu.



ANDER
PINILLA

JULIA ARRANDEGIA. Berriz

Julia arrandegia zabaldu duzu oraintsu.

Bai. Hamar urte generamatzan Eroski barruan, baina orain gure kabuz hasi gara.

Zure komertzioan, zer garrantzi ematen diozu euskararen erabilerari?

Oso garrantzitsua dela uste dut. Jende nagusia etortzen zaigu eta gazteak ere bai. Adibidez, nire emaztea gugaz hasi zen eta euskara apur bat galduta zuen. Bezeroekin euskaraz berba eginez eta beldurra galduz, orain ondo berba egiten du.

Merkatari gazteengan badago alderik hizkuntza aldetik?

Bai, beharbada lehen, orokorrean, ez zioten hainbesteko garrantzirik ematen. Gu ahalegintzen gara lehenengo berba euskaraz egiten eta kartelak euskaraz ipintzen. Hori ona da komertzioa bultzatzen gabiltzalako eta, era berean, euskararen erabileran eragiten gabiltzalako.



TXABI
EMALDIA

XIBERU taberna. Zornotza

Zergaitik erabaki duzu kanpaina honetan parte hartzea?

Euskaragazko konpromisoagaitik. Behin taberna edo komertzio bat edukita, erakusleho ezin hobea izan daiteke konpromiso hori erakusteko. Gauza txikiekin asko egin daiteke euskararen alde

Beste herri askotan lez, Zornotzan euskararen ezagutza ez dator bat erabileragaz.

Gehienok ikasketak euskaraz eginda ditugun arren, egunerokotasunean gutxi erabiltzen dugu. Euskaraz dakiten komertzioetan, askotan euskaraz zuzentzen gara. Eskatzen dena oso erraz eta labur esan daiteke. Baina solasaldi luzeagoetan erdarara jotzeko ohitura dago.

Zein hizkuntza irizpide dituzu tabernan?

Barran gehienok euskaldunak gara, eta barran erdaldun bat badago, minimo batzuk betetzen ditu. Gainera, sare sozialetako iragarpen guztietan euskarari ematen diogu lehentasuna. ANBOTO eta Berria ere izaten ditugu.



BAKARNE
BELAR

BELAR fruta denda. Zaldibar

Zergaitik erabaki duzu kanpaina honetan parte hartzea?

Betidanik euskaraz aritu naizelako eta gure hizkuntza bultzatzea garrantzitsua delako. Gainera, horrela, euskaldunberriei praktikatzeko aukera ematen diegu.

Beste herri askotan legez, Zornotzan euskararen ezagutza ez dator bat erabileragaz.

Bezeroak euskaraz egiten badit, nik euskaraz erantzuten diot, eta lehenengo berba ere euskaraz egiten dugu. Ikasten dabiltzanei ere esaten diet animatzeko eta euskaraz eskatzeko. Zaldibar herri txikia da eta gehienetan denok elkar ezagutzen dugunez errazagoa izaten da.

Euskaraldian ere parte hartu zenuen?

Bai, eta esperentzia ona izan zen. Txapa ipini nuen. Jende nagusiari gehiago kostatu zitzaion txapa ipintzea, baina euskaraz egiten dute.

ATE
IREKIAK
HAURTZAINDEGIA
0,1,2 URTE

Abenduaren 2an
arratsaldeko
17.30etan

EMAN IZENA





<https://labur.eus/ateirekiak22-23>



Durango

KRISTAU ESKOLA

Biharko ametsak, gaurko erronkak



Urrezko Q ziurtagiria

94 681 00 50
sanjose@durangojesuitak.org
www.durangojesuitak.org

“Euskararen errepublika izango da tresnarik eraginkorrena euskaraz bizi ahal izateko”

Euskal Herrian Euskarazek manifestaziora deitu du Durangon, abenduaren 6rako. 17:30ean hasiko da, Landako Gunetik. Egungo legedia euskararentzat "agortuta" dagoela diote

DURANGO • E.H. / J.G.

Koldo Zarate eta Aitziber Areitio Durangoko Euskal Herrian Euskaraz elkarteko kideak dira.

Euskarak “larrialdi linguistikoa” bizi duela diozue. Zeintzuk dira arrisku seinaleak?

Betidanik jaso izan ditugun erasoak lotsarik barik areagotzen dabilta aspaldian: epaitegietatik hizkuntza politika egiten aha- legintzen dira, Molac legeagaz eta halakoekin; euskaraz ikastea oztopatu gura dute; nafarren hizkuntza eskubideek zonifikatuta jarraitzen dute; euskaldunak burgesiagaz eta pribilegioekin lotzen gaituzte... Hizkuntzaren gatazka agerian geratzen dabil.

Egoera eraldatzeko marko juridikoa aldatu beharra dagoela diozue, erdigunean independentzia ipinita. Independentzia al da euskara salbatzeko irtenbide bakarra?

Euskararen errepublika izango da tresnarik eraginkorrena euskaraz bizi ahal izateko. Horregaz bakarrik ez da nahikoa izango, ja-

kina, baina kanpoko esku hartze- rik barik eta hizkuntza politika burujabea bertan erabakita, Euskal Herri euskalduna eraikitze- ko aukera izango dugu.

Gaur egun indarrean dagoen legedia “agortuta” dagoela diozue.

Hamarkadetan indarrean egon diren hizkuntza politikak agortuta daudela diogu, bai. Lurralde batzuetan asko aurreratu bada ere, azken hamarkadan etenaldi bat egon da eta atzerantzko joerarako arriskuan

Auzoetan edo herrietan garaturiko borrokak dira euskara berreskuratzeko erregaia

gaude. Lorturikoa irabazpidean ipintzeko garaia da, jautzia behar dugu legedietan, hizkuntza politika- ketan, hezkuntzan, garai berrieta- ra egokitu...

'Ikusmira' manifestuan diozuenez, herririk herri, eremurik eremu, ha-



siko dituzue dinamikak. Maila mi- krotik makrorako estrategiak zelan lagundu dezake egoera eraldatzen?

Auzo batean, herri batean edo ere- mu funtzional batean garaturiko borrokak dira euskararen berres- kurapenerako erregaia. Proble- matizatuz egoerak azaleratzen dira. Euskaraz bizitzeko aukerak

sortzea eta sortuta daudenean hauen aldeko hautua sustatzea da bidea.

Zein da Plateruenaren egoerari bu- ruz egiten duzuen interpretazioa?

Zenbatetan oroitu garen bere hu- tsuneaz zerbait antolatu behar izan dugunean! Euskararen arnagunea izan da, euskarazko kulturaren

sormenerako eta kontsumorako lekua, euskalgintzaren etxea... Proiektu berria ahalik eta arinen martxan ipintzea itxaroten dugu. Durangok, Durangaldeak, Euskal Herriak eskertuko du! EHeren partetik, babes osoa ematen diegu 'Plateruena eta gero zer?!' dinami- karen bultzatzaileei.

Umeekin esku hartzen duten helduen hizkuntza ohiturak aldatzeko egitasmoa hasi dute Durangon

'Haurren aurrean, helduok heldu' dinamika abenduaren 5era bitartean egongo da martxan

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Berbarok, udalagaz elkarlanean, dinamika berri bat hasi du euskararen erabilera sustatzeko. Di- namikak *Haurren aurrean, helduok heldu* du izena, eta umeekin lan egiten duten guraso, zaintzaile

eta hezitzaileengan eragin gura du hizkuntza hartu-emanetan euskarari eutsi diezaioten. Berba- rok "eragin bikoitza" lortu gura du: "Batetik, helduen artean hiz- kuntza ohituretan eragitea; eta, bestetik, helduak umeentzako

erreferentzia positibo bihurtzea hizkuntzari dagokionez". Dina- mikari loturiko olanak ipiniko dituzte herriko parkeetan. Ho- rrez gainera, parte hartzaileek identifikagarriak izango dituzte aldean.



Dinamikari loturiko olan bat, Benita Uribarrena parkean.

anboto ▶

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko azaroaren 26a
20. urtea - 872. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Gorette Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Zapatu honetan sukaldaritza saioak hasiko dituzte merkatu plaza biziarazteko

Bost sukaldaritza tailer egingo dituzte, hilean bat. Durangarrek herriko sukaldariekin batera kozinatuko dute



Sukaldariak, agintariak eta Sukaldaritza Sortzen proiektuko zuzendaria.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udalak egitasmo berri bat aurkeztu du baserriarren merkatua eta hornidura merkatua biziberritzen jarraitzeko: Sukaldaritza Sortzen. Zapatu honetatik aurrera, hilean behin, sukaldaritza saioak egingo dituzte baserriarren merkatuan, durangarren parte hartze zuzenagaz. Saio bakoitza herriko sukaldariak, ostalariek eta gozogileek gidatuko dute. Tartean egongo dira Saltsan Katering establezimenduko Iñaki Uribe, Amalur tabernako Jon Biota, Kobika jatetxeko Kortabitarte anaiak eta Gozatu gozotegiko Karmele Elexpe.

Saioetan izena ematen duten durangarrek eskualdeko baserriarren produktuak ezagutzeko eta horiek herriko sukaldariekin kozinatzeko aukera izango dute. Saio bakoitzean 15-20 bat herritarrek parte hartuko dute. Umeek, nerabeek eta gurasoek batez ere. Baina egongo da herritar guztiei zabalduko saio bat ere. Saio guztiak 10:00ean hasiko dira.

Iker Urkiza zinegotziaren berbetan, egitasmoak baserriarren azoka eta hornidura merkatua bultzatzea du helburu. Tailerrak "sukaldaritzaz harago" doazen zerbait dira, bere berbetan. Julián Ríošek, bestalde, "merkatuari bizitasuna eta aktibitatea bueltatzen" lagunduko dion egitasmo lez definitu ditu tailerrak. Bestalde, Sukaldaritza Sortzen proiektuko zuzendaria den Mario Vera donostiarrak tailerretan transmitituko diren balioak goraipatu ditu. "Tokiko ekoizleak, produktuak eta kontsumo jasangarria", haren berbe-

tan. Zapatuan, 10:00etan hasiko da lehenengo saioa. Umeentzako tailerra izango da eta Saltsaneko Iñaki Uribek gidatuko du. Merkatuan erosketak egin eta produktuak han bertan kozinatuko dituztela aurreratu du Uribek.

Tailerrak

Izena ematea beharrezkoa da saioetan parte hartzeko:

- Azaroaren 27a.
Sukaldaria: Iñaki Uribe (Saltsan). Nori zuzendua: 8tik 11 urtera arteko umeentzat eta gurasoentzat.
- Abenduaren 18a.
Sukaldaria: Jon Biota (Amalur taberna). Norerantzat: 12tik 17 urtera arteko nerabeentzat eta euren gurasoentzat
- Urtarrilaren 15a.
Jardunaldia zehazteke.
- Otsailaren 12a.
Gozogilea: Karmele Elexpe (Gozatu gozotegia). Norentzat: 8tik 11 urtera arteko umeentzat eta euren gurasoentzat.
- Martxoaren 12a.
Sukaldariak: Kortabitarte anaiak (Kobika). Norentzat: publiko orokorra.

TADUko disuasio aparkalekua astelehenean zabalduko dute, 120 autorentzako lekuagaz

Aparkaleku berriari eskerrak, Durango Udalak herri barruko trafikoa gutxitu gura du

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Herri barruko trafikoa gutxitzea batetik, eta kaleetako aparkalekuak libratzea bestetik. Durango Udalak helburu bi horiek lortzeko asmoz zabalduko du, astelehenean, aparkaleku berria. Disuasio aparkalekua Traña-Matienatik Durangorako sarbidean egongo da, garai bateko TADU lantegiaren orubean. 120 autorentzako lekua izango du eta Durangora datozen bisitariak auttoa bertan uzteko aukera izango dute.

Udalaren berbetan, aparkalekuak prezio "sinbolikoa" izango du. Dena dela, urtea amaitu arte debalde erabili ahalko da. 2022tik aurrera izango da ordainpekoa, Landako inguruan TAO zerbitzua aplikatzen hasten

direnean. Lanek 297.000 euroko aurrekontua izan dute.

Udalak adierazi du aparkalekua "Durango historiako lehenengo aurrekontu parte hartzaileetan botorik gehien jaso

zuen proiektuetariko bat" izan zela. Bestalde, ETSgaz lorturiko akordioari eskerrak, 3.000 metro koadroko berdegunea ipini dute garai bateko Fauste-Landako garelakuan.



Disuasio aparkaleku berria garai bateko TADU lantegiaren orubean ipini dute.



SAN ANTONIO
IKASTETXEA
Irakasleon Kooperatiba



PATIOA HEZKUNTZA-ESPASIO GISA

San Antonio ikastetxean kanpo espazioek eta barrukoek bat egin dute.

Jolastokia gela luzapena izatera pasatu da.

Haurrek, Durango erdian egonda ere, naturaz disfrutatu, psikomotrizitatea garatu (altuera desberdinetara igo, irristatu, rokodromoa,...), eta hainbat material naturalekin esperimentatu (hondargunea, lurra, landareak,...) dezakele. Honekin batera, gela egiten diren dinamikak (asanblada, antzerkiak, ipuin kontaketa,...) bertan egiteko aukera daukagu.

Haur bakoitzaren beharren arabera, eta beti umeen erritmoa errespetatuz, hainbat gune daude: mugimendurako gunea, nor bere kasa ibiltzeko gunea, besteekin sozializatzeko gunea, esperimentatzeko eta disfrutatzeko gunea. Jolasa baita berez haurrek mundua ezagutzeko duten modurik onena.

Txikiak ere babestuago dagoen gune bat dute eskuragarri. Bakoitzak dituen gaitasunez baliatuz, mugimendu askearen bitartez garatzen joateko.

Jolas eta ikaskuntza-eremu berdeak ikasle guztiei egokitzen zaizkie eta, seguruak izateaz gain, gizarteratzea sustatzen dute.

Era berean, gune hauek guztiek umeen gogo-aldartean, ongizatean eta errendimendu akademikoan eragiten dute, kontzentrazioa handitzen delako eta, horrela, ikasteko erraztasun handiagoa lortzen dutelako. Beti ere, hezkuntza-proiektua, curriculum, gure konpromiso soziala eta berrikuntza uztartuz.

Asteburu honetan autokarabanen topaketa egingo dute Durangon

DURANGO • J.D.

Autokarabana, karabana, 'camper' eta antzerakoei bideraturiko topaketa gaurtik domekara bitartean izango da eta Durangoko sarreran —Tadu enpresa zegoen gunean— egindako aparkaleku berrian elkartuko dira. Askotariko ekintzak egingo dituzte hiru egunetan.

Urko Fernandez Presa bilbotarra dago ekimenaren atzean. Orain urte bi Elorrion antolatutako topaketan ere ibili zen eta aurtan Durangora ekarri du ekimena, beste eragile batzuen laguntzagaz.

Topaketak helburu bi ditu. Batetik, karabanazaleek "denbora asko" daramate elkartu barrik, eta ekimena "normalitatera itzulera ospatzeko" modu bat da Fernandezek berbetan. Baina jaia aldarrikapenekin uztartuko dute. "Durangok autokarabantentzako gune bat egin dezan eskatu gura diogu udalari", dio. Izan ere, azken urtean furgonetan bidaiatzeko zaletasuna "ikaragarri" hazi dela azaldu du.

Sariak, ikuskizunak eta umore ona, Berton Bertokoaren lehenengo galan

Tokiko elikaduraren aldeko dinamika gala bat egingo du Arriolan, abenduaren 10ean



Berton Bertokoa dinamika kideak, galarako prest.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Berton Bertokoa dinamika egitasmo berri bat gehitu du orain arte egindako aldarrikapenen, sukaldaritza saioen, plantoen eta bideoklipen zerrendara: gala bat. Tokiko elikaduraren aldeko dinamika aurreratu du jaialdi berezi bat egingo duela abenduaren 10ean, Elorrioko Arriola aretoan. Ekitaldia 18:00etan hasiko da. Egitasmoaren bultzatzaileek

Antolatzaileen esanetan, galan zuzeneko musika, sari banaketa, photocalla eta dantzak egongo dira

Sarrerak Berton Bertokoak esku hartzen duen eskoletan daude salgai, 3,5 eta 5 euroan

aurreratu dute zuzeneko musika, photocalla, sari banaketa eta dantzak egongo direla. Ekitaldirako sarrerak dinamika esku hartzen duen eskoletan daude salgai, 3,5 euro (umeak) eta 5 (helduak) euroan. Durangalde osoko herritarrek deitu dituzte galara joan eta Arriola aretoa betetzera.

Urritxeko 10 ikaslek zabalik dute Europako herrialdeetara ikastera joateko aukera

Asteon, Erasmus+ ikasketa programa inauguratu dute. Italia, Errumania, Bulgaria, Turkia eta Irlanda zain dituzte

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Urritxe institutuko hamar ikaslek Italiara, Errumaniara, Bulgariara, Turkiara edo Irlandara joan ahal izango dute ikastera, Erasmus+ programari eskerrak. Trukean, atzerriko ikasleek zabalik dute Zornotzara etortzeko aukera.

Hezkuntza komunitateko kideek eta udal agintariek ongietorri ekitaldia egin dute asteon. Andoni Agirrebeitia alkatearen berbetan, Erasmus+ programak "erronka" eta "esperientzia aberasgarriak" ekarriko ditu Zornotzako ikasleentzat.



Erasmus+ programari ekitaldi batez eman zioten hasiera.

Iurretan diru laguntzak emango dituzte gazteek etxebizitza alokatzeko

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak herrian erroturiko 18tik 35 urtera bitarteko gazteei diru laguntzak emango dizkie etxebizitza alokatu ahal izan dezaten. 9.000 euroko diru poltsa gorde dute horretarako. Abenduaren 15era arte egin daitezke eskaerak.

Gehienez, 250 euro

Etxebizitzaren hileko alokairuaren erdia izango da diru laguntzaren zenbatekoa, komunitateko eta etxebizitzaren eranskinetako gastuak kenduta. Udal arduradunek argitu dutenez, eskaera bakoitzari, gehienez, 250 euroko diru laguntza emango zaio hilean. "Gazteei euren emantzipazio prozesuan eta helduen mundura sartzeko momentuan babes ematea" da helburua, udal ordezkariak nabarmendu dutenez. Eta gazteei herrian etxebizitza alokatzeko aukera eman gura dietela gaineratu dute. Eskaera egiteko oinarriak Herritarren Arretarako Zerbitzuan (HAZ) eskuratu daitezke.

Garapenerako lankidetzak proiektuei laguntzeko deialdia Iurretan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak garapenerako lankidetzak proiektuetarako diru laguntzen deialdia zabaldu du, 5.000 euroko diru poltsagaz. Laguntza jasotzeko, 2022an gauzatuko diren proiektuak izan behar dira eta eskaria azaroaren 30a baino lehenago egin behar da. Garapenerako gorbenez kanpoko erakundeek (GKE) edota garapenerako lankidetzan jarduten duten irabazi asmorik bako elkarte eta erakundeek egin dezakete eskaria.

Azkenengoz, Medicus Mundi Bizkaia elkartearen proiektu batek lortu zuen laguntza. Hondurasko San Martin komunitatean edateko ur sistema baten inplementazio tekniko eta parte hartzailea garatzeko proiektuak 4.979,54 euroko laguntza lortu zuen. "Ur sistema bideratzeko sare bat eraiki zen, jatorri hidrikoko gaixotasunak murrizten laguntzen zuena. Gainera, prozesu parte hartzaile bat bideratu zen, emakumeek aktiboki parte hartzea bideratzen zuena", azaldu dutenez.




Garaiko Udalak hondakin uren araztegi berri bat ipiniko du Oarren

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko udalbatzak hondakin uren araztegi berri bat instalatzea erabaki du, aho batez. Instalazioa herriaren erdigunetik gertu ipiniko dute, Oar auzoaren behealdean. Aurreikuspenen arabera, abenduan ekingo diete lanei. Udaleko iturriek diotenez, orain lau bat hamarkadatik hona funtzionamenduan dagoen araztegia ez dabil ondo, eta arrakalak izaten ditu tarteka. Horregaitik, araztegi berriak herriko gaur egungo beharrezanez erantzungo die, biztanleria handitzeaz gainera ostalaritza negozioen kopuruak ere gora egin du-eta Garain.

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

 **Pedagogia**
PSE: 63/63

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO ZENTROA**

Laguntza goiztiarra,
psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Optometria**
PSE: 162/13

Naia
Zabala
Azumendi
11587 kol. zk.



keinu

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Podologia**
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO

Podologia
klinikak

Goiatz Murua
kol. zbk. 147
Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefona: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara
adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago,
den-dena prestatu
dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194
454uecdental@gmail.com

 **Odontologia**
PSE: 112/13



J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

 **Estetika**
PSE: 16/09

 **AGIRRE KLINIKA**
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaDurango.com

Obesitatea-zelulitisa, Laserra:
depilazioa, barizeak, tatuajeak behin
betiko kentzeko laserra..
Adinaren kontrako tratamenduak:
orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6 / 48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

 **Psikologia**
PSE: 62/11



JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

Megako langileek salatu dute zuzendaritza "enpresa galtzen" dabilela

Enpresa batzordeak esan duenez, enpresa hartzekodunen konkurtsoan sartu daiteke



Melchor Gabilondo enpresako langileak elkarretartatzean.

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

CCOO sindikatuak prentsa ohar baten bitartez jakinarazi duenez, 80 urte baino gehiago dituen Berrizko Melchor Gabilondo (MEGA) enpresan "egoera kaskarra" bizi dute eta langileak mobilizazioak egiten dabilta. "Azken urteetako kudeaketa penagarria da. 120 langileko plantilla duen enpresak horietariko 18 kalera botatzea erabaki zuen 2020an, eta sei berriro hartu zituzten gero. Hori kudeaketa txarraren seinale da", adierazi dute CCOO sindikatuko kideek.

Horri erantzun, soluzio bat eskatu eta "egoeragaz nekatuta"

"Enpresa batzordearen adostasunik barik enpresa ERTE bat negoziatzen dabil"

daudela lau haizetara zabaltzeko, langileek kalera irtetea erabaki zuten orain aste batzuk. Elkarretaratze horietan, hitzarmen berri bat sinatzea eta gutxieneko soldata igotzeko eskatzen zuten, besteak beste. "Baina egoera okertu egin da. Zuzendaritzak urriko nomina azaroaren 15eko astean ordainduko zigula esan

zigun, eta orain ez duela egingo esan digu. Enpresaren berbetan ez dago likidezirik nomina horiek ordaintzeko", jarraitu dute CCOOkoek.

Hori gutxi balitz, enpresa batzordearen adostasunik barik enpresa ERTE bat negoziatzen ahalegindu dela azaldu dute. Enpresa batzordea CCOOeko zazpi kidek eta ELA sindikatuko bik osatzen dute. "Enpresako zuzendaritza enpresa galtzen dabil", salatu dute. Eta horrela jarraituz gero, enpresa hartzekodunen konkurtsoan sartzeko ateetan egon daitekeela salatu dute.

Bertso saio musikatua Berrizen euskara hamabostaldiaren barruan

Berrizen euskara hamabostaldia antolatu dute 'haurren aurrean helduok heldu' kanpainaren barruan

ATXONDO • AITZIBER BASAURI

Haurren aurrean helduok heldu kanpainaren barruan euskara hamabostaldia antolatu dute Berrizen. Horretarako, hainbat ekintza antolatu dute. Esaterako, domekan, azaroak 28, bertso saio musikatua egongo da Berrizko Kultur Etxean, 12:30ean. Bertan, Miren Amuriza, Iruri Altzerreka, Oihana Bartra eta Alaia Martin arituko dira kantuan Berrizko bertso eskolako kideekin batera.

Bestalde, abenduaren 2an, Amaia Egidazuk *Dorotea* ipuin ilustratuaren aurkezpena egingo du; eta abenduaren 3an, Mar Mar antzerki taldeak *Tarzan tratamenduan* ikuskizuna eskainiko du.

Abenduaren 14an, *Euskararen kriseilua* ekimenean parte hartu

duten familiekin amaiera festa egingo dute eta ekimenari amaiera emateko Xabier Amurizaren *Uhar-te bat Venusen* eta *Etxepare, jalgi hadi batura* liburuen aurkezpena egingo da, 18:30ean, Kultur Etxean.

Bertso saio musikatua domekan izango da, azaroak 28, Berrizko Kultur Etxean, 12:30ean

Horrez gainera, data hauen bueltan beste ekimen batzuekin Berrizko kaleak euskaraz jantzikiko dituztela jakinarazi dute. Tartean, Gertukoa merkataritza kanpaina eginda.

Elorrioko Udalak kirolaren eta jarduera fisikoaren plan estrategikoa eguneratu du

Plan estrategiko berriak 4 ardatz nagusi eta 24 proiektu izango dituela jakinarazi dute Elorrioko Udaletik



Elorrioko udaletxea.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Hileetan lanean egon eta gero, joan zen urrian Elorrioko Udalak argi berdea eman zion kirolaren eta jarduera fisikoaren plan estrategikoa eguneratzeari, alderdi guztien aldeko botoagaz.

Udaletik jakinarazi dutenez, plan estrategiko berrian honako lau helburu nagusiak oinarri hartu dira: bizitza osorako jarduera fisikoa, berdintasunean oinarrituriko jarduera fisiko inklusiboa, kalitatezko kirola eta kirol-ekosistema zabal baten aldeko apustua. Bestalde, 4 ardatz hauetan

esku hartu behar dela jakinarazi dute: jarduerak, espazioak, komunikazioa eta kudeaketa. Eta, horretarako, lehentasun-maila desberdinak dituzten 24 proiektu egingo dituzte.

"Bizi izan dugun eta oraindino bizitzen jarraitzen dugun osasun krisiak kirol sistema osoa ezegonkortu du, eta denbora beharko da eragileen eta jardueren arteko oreka lortzeko. Kirol jardunbidea eta jarduera fisikoa aldatu egin dira eta egoerara egokitu dira", azaldu du Dani Palacios zinegotziak.

Atxondoko Udalak datorren urteko tasak eta zergak izoztuko ditu 2022an

Zergak izoztuta, "familiei karga ekonomikoa arintzen" lagunduko dietela esan dute



Atxondoko udaletxea.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udaleko gobernu taldeak jakinarazi duenez, datorren urteari begira ordenantza fiskalak aldatu barik jarraituko du eta, beraz, udal tasak eta zergak izoztuta jarraituko dute, hirugarren urtez jarraian.

"Udal zergak izozteak familien karga ekonomikoa arintzen lagundu dezake, eta, beraz, datorren urtean tasak eta zergak ez dira aldatuko", adierazi dute Atxondoko Udaleko arduradunek. Hala ere, udaleko kideek aurreratu dutenez, zenbait tasetan "defizit handia" dago eta noizbait "doitu" egin beharko da. "Hala ere, oraingoz ahal duguna egiten jarraituko dugu, herritarrei laguntzeko asmoz", amaitu dute gobernu taldekoek.

LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA

Ohiko saltokietan salgai

2022

Durangaldeko egutegia

ABADIÑO	Petite
	Abadiñoko estankoa
ATXONDO	Kiosko Atxondo
BERRIZ	Egunon okindegia
DURANGO	Etxebarria prentsa denda
	Hitz Liburudenda
	Arkarazo taberna
ELORRIO	Ilargi prentsa denda
GARAI	Herriko taberna
IURRETA	Iurreta kopistegia
IZURTZA	Herriko taberna
MAÑARIA	U2 taberna
MALLABIA	Herriko taberna
OTXANDIO	Korostondo janari denda
ZALDIBAR	Imendia prentsa denda
ZORNOTZA	Ayerdi prentsa denda



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

Euskadiko Auzitegiak Bizkaiko epaitegiaren epaia berretsi du Izurtzako industrialdeko auzian

2014an industrialde inguruan urbanizazio lanak egiteko udalagaz hitzarmena sinatu zuten enpresek milioi bat euro ordaindu beharko dizkiote Garaunza S.L.ri, udala erantzule subsidiario dela; gestoria batek kudeatuko du banaketa

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO
Izurtzako Udalak —Arbizolea industrialdeko hainbat enpresaren defentsan— eta industrialde hartako Garaunza S.L. enpresak mantendu duten auzia amaierara heldu da. 2020an, Bilboko epaitegiaren epaia Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusira errekurritu zuen udalak. Auzitegi honek, 2021eko epaian, atzera bota du udalaren apelazio errekurtsioa. Bilboko Auzitegiaren erabakia "zuzenbideari lotuta" dagoela jasotzen du EAEko Auzitegiaren epaiak. Udalak ez du epai hau Gorenera errekurrituko.
Epai honen ondorioa da Arbizolea industrialdeko hainbat enpresaren artean 1.089.238 euro ordaindu beharko dizkiotela Garaunza S.L.ri. Udaletik aurreratu dute gestore bat arduratuko dela enpresa bakoitzak ordaindu beharrekoa zehazteaz eta gaia bideratzeaz. Edozelan ere, udala erantzule subsidiario lez geratuko da.

Auziaren sorburua 2007an dago. Orduan, Garaunzak industria-nabe bat eraiki zuen gune hartan, eta bere inguruan urbanizazio lanak egin zituen. Zazpi urte geroago, 2014an, udalak eta Arbizoleako hainbat enpresak industrialdeko urbanizazio lan batzuk egin zituzten.



Arbizolea industrialdea Izurtzako gasolindegia-
ren ondoan dago.

Garaunzaren ustez, eurek eta gainerako enpresek ordaindu dutenaren artean ez da "berdinbanaketaren printzipioa" errespetatzen. Eta horrela izan behar luke "euren lurrak Arbizolea industrialdearen barruan daudelako" eta obrak egin arte "ez zelako lur kontsolidatua", jasotzen denez epaian. Gainkostua 1.089.000 eurotan kalkulatu zuten.

Udalak, oster, bere defentsako arazoibideetariko batean, arau subsidiarioen artikulua bati egiten dio erreferentzia. Artikulu horrek eraikitako lurzorua eta lurzoru kontsolidatuak bereizten ditu: "Ez da berdinbanaketaren printzipioaren arau-hausterik, Arbizoleako lurzoru industrialak kontsolidatu lez ordenatuta dagoelako, Garaun-

zaren partzela eraikigarria salbu". Horregaz batera, 2014ko hitzarmenak dagoeneko existitzen zen urbanizazioa "erramatzatzea" zuen helburu eta "ez zuten zerikusirik Garaunzaren industria-nabeei loturiko urbanizazio lanekin". Hau da, espazio biak eta lan biak desberdin-
du egiten dituzte eta arau diferenteei lotuta daudela argudiatu dute.

Mallabian 300 kilo jostailu eta arropa batu dute eta Koopera erakundeari eman diote dohaintzan

Mallabiko auto klasikoen taldeko kideak herriko jubilatuen tabernan egon ziren azaroaren 20an materiala batzen

MALLABIA • J.D.
Mallabiko auto klasikoen taldeko kideek ekimen solidario bat egin dute. Jostailuak eta arropa batu dituzte Koopera erakundeari emateko. Guztira, 300 bat kilo batu dute. Koopera gizarte-bazterkeria arriskuan dauden pertsona eta familiei laguntzen dien sare herritarra da eta lokal bat du eskualdean, Zornotzan hain zuzen ere.
Mallabiko auto klasikoen taldeko kideak Mallabiko jubilatuen tabernan egon ziren azaroaren 20an, eta herritarrek hara eraman zituzten joastailuak eta arropa. Ondoren, Ermuko merkatu plazako biltegian gorde zuten materiala. Atzo eraman zuten material guztia Koopera erakundearen lokalera, kamioian.

Ezin La Palmara bidali
Hasierako asmoa beste bat zen. Jostailuak, arropa eta elikagaiak batu eta La Palmara bidali gura zituzten, sumendiak kalteturiko

Oier Correia: "Aireportua itxita dago eta, ondorioz, ezin genuen materialik bidali La Palmara"

familientzat, baina ezin izan dute. "Aireportua itxita dago eta ezin genuen materialik bidali Palmara. Beraz, orain hiru urte egin genuen moduan, Kooperari ematea erabaki dugu", azaldu du Oier Correiak, Mallabiko auto klasikoen taldeko



Mallabiko auto klasikoen taldeko Oier Correia, baturiko jostailuen eta arroparen ondoan.

Mañariko 10 kilometroko lasterketarako izen-ematea hasi dute

MAÑARIA • J.D.
Urte amaieran herri askotan antolatzen diren San Silbestre lasterketen artean Mañarikoa ere egongo da aurtan. Durango-ko Kirol Errotak eta Mañariko Udalak antolatu dute proba eta abenduaren 31n izango da, 10:30ean.
Izen-ematea hasita dago dagoeneko eta datozen egunetan egin beharko da. Abenduaren 20ko astelehena izango da apuntatzeko azken eguna, kirolpro-

Korrikalariak Arrueta auzotik eta PR-BI 84 ibilbidetik ibiliko dira, besteak beste

bak.com webgunean. Parte hartzea 12 euro izango da.
Probako 10 kilometroak Andra Mari kaletik, Arrueta auzotik eta PR-BI 84 izeneko ibilbidetik zehar izango dira, besteak beste.

Limitaduen inguruko ikerketa historikoaren aurkezpene egingo dute gaur Otxandion

OTXANDIO • J.D.
Otxandio eta Aramaio arteko limitaduen inguruko eztabaida ez da berria. Urte askoan izan da polemika iturri. Herri bien arteko mugan, nork bere jabetzakotzat hartzen dituen lursail

Euskal Herriko Unibertsitateko Belen Bengoetxea irakaslea izango da hizlaria

batzuk daude. Hori horrela, Otxandioko Udalak ikerketa bat agintzea erabaki zuen bere sasoiaren, egia historikoa zein den argitzeko.
Egindako ikerketa horren ondorioak herritarrei azaltzeko unea heldu da orain. Gaur, 18:30ean, *El limitado* izeneko ikerketa historikoaren gaineko aurkezpene egingo dute Otxandioko kultur etxean. Euskal Herriko Unibertsitateko Belen Bengoetxea irakaslea izango da hizlaria.



Dendetako ordezkariak eta alkatea, prentsa agerraldian.

7.500 euro Gabonetako erosketak Zaldibarren egiteko

Zaldibarko Udalak 750 bonu ipiniko ditu zaldibartarren eskura; dendariak pozik agertu dira ekimena egiteagaz

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Zaldibarko Udalak aurreneko martxan ipini du Gabonetako salerosketak herrian bertan egitea sustatzeko ekimena. Hamasei saltoki batu dira ekimenara, eta, guztira, 750 bonu egongo dira erabilgarri. 18 urtetik gorako zaldibartar bakoitzak bonu bat erosi ahalko du abenduaren 1etik

aurrera. Abenduaren 3tik urtarri-laren 7ra bitartean erabili ahalko dira. Ekimenagaz pozik dauden arren, dendariak "kezkaturak" agertu dira irailetik hona izan duten "stock gabezia" dela-eta. "Arazoa orokorra da eta ez dakigu generorik helduko den Gabonetarako", azaldu du Olga Gozalo dendariak.

ZALDIBAR • A.M.

Zaldibar San Andres jaietan murgilduko da gaurtik aurrera. "Beharrezko osasun neurriak hartuta" egingo dira ekimenak, udalak ohar baten bitartez zabaldukoaren arabera, osasun egoerak horrela behartuta. 19:00etan jaurtiko dute jaiei hasiera emango dien txupina; Olazarmendi taldeko nerea Gomezek eta Olaia Onandiak eta Zaldibarko Arku taldeko Lidia Cañetek botako dute. Hain zuzen ere, zapatuan arku jaurtiketa erakustaldia egongo da Olazarren, 10:00etan. Bestalde, domekan Zaldibarko XXII. Neguko nekazari azoka egingo dute. Kaleak girotze-ko, kalejira egingo dute trikitilari-ekin, 11:00etan.

Zaldibarko gaztetxean ere antolatu dituzte ekitaldiak neguko jaiak ospatzeko. Barikuan, Sua eta Hatxe taldeek kontzertua eskainiko dute, 22:00etan. Zapatuan, azaroak 27, bazkaria egingo dute. Ostean, DJ Pakigaz poteo girotua egongo da eta gauean jaiak egingo dute DJ Bull musika jartzaile eza-gunagaz.

Txosnagunearen salaketa

Bestalde, Zaldibarko txosnagunea osatzen duten eragileek agerraldia egin zuten martitzenean, jai batzordean gehiago parte ez hartzea erabaki dutela azaltzeko.

Txupin jaurtiketaz, gaur ekingo diote San Andres jaiak ospatzeari Zaldibarren

Olazarmendiko Nerea Gomez eta Olaia Onandiak eta Lidia Cañete arkulariak botako dute txupina, 19:00etan



Sua taldea.

"EAJk instituzio publikoan ego-teak ematen dion boterea erabili du eragile baten aurka jotzeko. Kasu honetan, Ernai gazte antola-kundea udako kultura egitarautik zentsuratu dute", salatu zuten. Ho-

nenbestez, "udalak jarrera aldatu ezean" udako jaiak prestatzeko batzordean ez direla egongo adie-razi zuten. Gaztetxeak, Ernaik eta Dominikak osatzen dute txosna-gunea.

Aurrekontua %10 haztea proposatuko du gobernuak

12 milioi euroko aurrekontua proposatuko dute 2022rako; Abadiñoko udal gobernu taldeak tasak eta zergak izoztea ere proposatuko du



Muntsaraz - Zelaieta hiri-zeharbiderako obrak.

ABADIÑO • A.M.

Abadiñoko udal gobernu tal-deak 12.000.000 euroko aurre-kontu proposamena eramango du azaroko osoko bilkurara; iazkoagaz alderatuta, %10 han-diagoa izango da. Inbertsioen atala milioi bat eurokoa izango da; diru partidari handiena Muntzaratz - Zelaieta hiri-zehar-bidea osatzeko lanetarako ipi-niko dute; 766.000 euro ipiniko dituzte jada martxan dauden lan horietarako. Aurrekontue-tako berrikuntzetariko bat in-gurumen teknikariaren plazari dagokio. "Gure konpromisoan adierazi genuen moduan, in-

Inbertsioen ataleko zatirik handiena Muntzaratz - Zelaieta zeharbideko lanetara doa

gurumen teknikariaren plaza sortu eta bete da, eta, orain, arlo estrategiko honetan aurrera egiteko partida espezifikoak ditugu", azaldu Iñaki Rekalde ogasun zinegotziak.

Zaldibarko XXII neguko azoka

azaroak 28

10:00 epaimahaiaren erabakia
11:00 azokaren hasiera eta kalejira trikitilari-ekin

goizean Zehar: sagar doa hola egiten den ikusteko aukera

antolatzailea


Zaldibar Elizateko Udala

laguntzailea



9	9
8	8
7	7
6	6
5	5
4	4
3	3
2	2



Jaurlaritzak Auzitegi Gorenera jo du COVID ziurtagiria ezartzeko baimen bila

Eskubide murrizketak "beharrezkotzat" jo ditu, "osasuna eta bizitzeko eskubidea babesteko"

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Eusko Jaurlaritzak helegitea aurkeztu du Espainiako Auzitegi Gorenean, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Auzitegi Nagusiak gaueko aisialdiari loturiko establezimenduetan eta 50 bazkaltiarretik gorako jatetxeetan COVID ziurtagiria ezarri ahal izateko eskaria atzera bota eta gero. Eusko Jaurlaritzak neurriaren "proportzionaltasuna" defendatu du. Bere esanetan, "eskubideen murrizketa orok beharrezkoa eta egokia" izan



Taberna baten kanpoaldea, Durangoko erdigunean.

behar du, "goragoko eskubide bat babesteko, hala nola bizitzeko eskubidea eta osasunaren babesa". Eusko Jaurlaritzako zerbitzu juridikoek argudiatu dute horrelako neurri bat "beharrezkoa" dela "birusaren transmisio komunitarioko olatu berri bat

Jaurlaritza: ziurtagiria "funtsezko jarduerarik ez duten lokalei" dagokie

eteten laguntzeko eta herritar guztien txertaketa are gehiago sustatzeko". Era berean, ziurtagiriaren erabilera "funtsezko jarduerarik egiten ez duten lokalei" dagokiela iritzi dio Jaurlaritzak, eta establezimendu horietara sartzea "borondatezkoa" dela argudiatu du.

Politikan

Mireia Elkoroiribe
Zenikaonaindia
EAJ



Eta zuk... ikusten duzu?

Emakundek Azaroaren 25era-ko, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunerako diseinatu duen kanpainak "Eta zuk... ikusten duzu? Adi dagoen gizarte batek soilik detektatzen du indarkeria ezkutuen" lema du. Kanpaina honek 55 eta 79 urte bitarteko emakumeen testigantza hunkigarriak biltzen ditu, gizarteak egoera latz horiek normaltasun osoz onartzen zituen garaian izandako esperientziak kontatzen dituztenak.

Gizarte gisa aurrera egin dugula sinetsi nahi dugu, baina indarkeria matxistaren eta sexu-eraso askoren ondorioz emakumeen hilketa izugarriak egiten jarraitzen da. Arazo sozial larri horretaz jabetu beharko genuke eta ikusi beharko genuke, baina benetan ikusten dugu?

"Edozein adineko emakumek Ez esaten duenenean Ezetz da"

Horregatik, Emakunderen kanpainak gizarte gisa guztioi eskatzen digu adi egoteko eguneroko indarkeria-egoeren aurrean, kasu askotan egoera normalizatuen aurrean, askotan konturatu ere egiten ez garen mikromatxismoen aurrean.

Lanean jarraitu behar dugu gure errealitateari gertatzen zaionari adi egoteko eta hurrengo belaunaldiei transmititzeko gai izateko gizarte gisa hobetzeko.

Eta errepikakorra badirudi ere, esaten jarraituko dugu edozein adineko emakumek Ez esaten duenenean Ezetz dala.

Durungaldea asteen

Durangoko Maristak ikastetxeak Urrezko A saria lortu du kudeaketa aurreratuan

Durango I Durangoko Maristak ikastetxeak Urrezko A Euskal Saria jaso du kudeaketa aurreratuan. Aintzatespen honek, praktika aurreratuak dituzten eta bere interes taldeen —bezeroak, pertsonak, akziodunak eta gizarteak, besteak beste— asebetetze orekatua bilatzen dituzten erakundeak saritzen dira. Saria abenduaren 13an banatuko da, Euskalduna Jauregian.

Abenduaren 5ean, nekazaritza eta artisautza azoka egingo dute Atxondon

Atxondo I Urtero abenduko lehenengo domekan, nekazaritza eta artisautza azoka egiten da Atxondon. Aurtengoa abenduaren 5ean egingo dute. Azoka honen asmoa bertako produktuei lehentasuna ematea da eta azokara doazenei bertako produktuak eskaintzea, besteak beste.

Punterengo Laburmetrai Lehiaketaren bigarren edizioa bihar, Abadiñon

Abadiño I Katalamixon taldeak Punterengo Laburmetrai lehiaketa antolatu du. Azaroaren 27an izango da eta 11:00etan emango dituzte lehiaketarako gaia, objektua, lekua eta esaldia. Parte hartzaileek 24 orduko epea izango dute lanak entregatzeko. Lehiaketako irabazleak 200 euroko saria izango du eta publikoaren saria irabazten duenak 100 eurokoa.



Durangoko instituturako garraioaren inguruan, galderak Hezkuntza Sailari

Durungaldea I Isabel Gonzalez legebiltzarkideak galdera sorta bat egin dio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari, Garaiko eta Berrizko zenbait familiagaz hartu-emanetan izan eta gero. Elkarrekin-Podemus-IUk azaldu duenez, "familia horiek zailtasunak dituzte seme-alabak eguneroko instituturara eramateko batxilergoa egitera, Hezkuntza Sailak ez duelako garraiorik antolatuturik, eta ez dago garraio publikoko eskaintzarik ordutegi horretara egokituta. Eskari hau Durangaldeko leku batetik baino gehiagotatik egin dezakete, ez zaie-eta garraio publikorik ailegatzeko".

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA – AIREA – GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com

Zubiurre, 8 IURRETA

946 202 768

Arzuria 10 B industrialdea, 13-14 pabiloiak ABADIÑO

944 071 791 - 692 859 779

hitz

artekalea 23, durango

946 810 776

info@hitzliburudenda.com


liburudenda

#salduenak





Labirinto honetan egin bidea sekuentziari jarraituta.



ITZALAK

Zein itzal dagokio txakur bakoitzari?






DIFERENTZIAK

Topatu zortzi diferentziak.




MATEMATIKA

Egin batuketa eta helmugara lehenago nor helduko den jakingo duzu.



IRUDI ENGAINAGARRIAK

Zazpi zati hauetatik bi ez datoz bat beheko irudiagaz. Zeintzuk?



ZENBATU

Zenbat urte egiten ditu?
Zenbatu alboko pastelaren gainean dauden
kandela guztiak eta erantzuna jakingo duzu.




LETRA ZOPA


Topatu eskolara eraman daitezkeen hamar gauza hauek letra zopa honetan.



OSATU
MARRAZKIA







Agurrik gabeak

EKITALDIA DURANGO :: Azaroaren 27an, 12:00etan

Soka-dantza Durangoko kartzelan egondako emakumeak oroitzeko

Agurrik Gabeak ekitaldian 1939tik 1940ra Durangoko emakumeen kartzelan egondako presoak gogora ekarriko dituzte. Durango 1936 kultur elkarteak eta Andereak elkarteak antolatutako ekitaldirako soka-dantza berezia egingo dute. Deialdia egin diete Durangoko dantza taldeei, Aikoko kideei eta baita Iurretako

plazan entseatzeko duen taldeari ere. 30 bat emakumek Patxi Labordetaren musikagaz Joseba Sarrionandiak osaturiko koplen erritmora dantzatzeko dira. Erika Lagomak abestuko du eta Onintza Azkaratek biolina joko du. Nevers ikastetxearen aurrean egingo dute ekitaldia. Euria bada, ikastetxe barruan izango da.

Azaroaren 26an

ABADIÑO bertsoak

Bertso afaria: Onintza Enbeita eta Aitor Mendiluze, 21:00etan, Mendiolako Errekatxo auzo elkartearen. Izena emateko, 680116710 telefono zenbakira WhatsAppa idatzi.

ABADIÑO ipuinak

‘Basoko paseoa’ ipuin kontaketa, 17:00etan, Txanportan. AHTaren Aurkako Aste Aktiboa.

BERRIZ kontzertua

Ezpalak, 18:32an, Topa tabernan.

BERRIZ dokumentala

‘Abiadura Handiko Txikizioa’, 18:30ean, Berrizko Gaztetxean.

DURANGO dokumentala

Mural margoketa + ‘Baraka’ dokumentala, 18:30ean, Larrasoloeta 5 zenbakian. AHTaren Aurkako Aste Aktiboa.

DURANGO ipuin musikatua

‘Emakume eskeletoak’ (Maite Arrese eta Mau Ziemkiewicz), 19:00etan, Eraildako Emakumeak Oroitzeko gunean, Ambrosio Meabe kalean.

DURANGO organo kontzertua

Pol Alvarez Viciano, 20:15ean, Andra Mari elizan.

ELORRIO antzerkia

‘Altsasu’ (La dramática errante), 20:00etan, Arriolan.

IURRETA ikuskizuna

‘Maitasunaren materia(l)ak’ (Mireia Delgado eta Uribarri Atxotegi), 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

ZORNOTZA dantza

‘Hiru hitzetan’, 20:00etan, Zornotza Aretoan. Hiru piezek osaturiko ikuskizuna: *Emakumeak* (Node) + *OUT* (Amaia Elizaran & Xabier Zeberio) + *Leiho zikin, zeru garbi* (Nerea Gurrutxaga & Oihana Vesga).

Azaroaren 27an

ABADIÑO kontzertua

BPP+ Parkatu, 22:00etan, Abadiñoko Gaztetxean.

ABADIÑO antzerkia

‘Adela eta Martirio Bernarda Albaren etxean’ (Naita Produksioak), 19:00etan, Errota kultur etxean.

BERRIZ ipuinak

‘Ipuinetatik jabekuntzarantz’ ipuin kontaketa saioa (Pituxa ipuin kontalaria), 12:15ean, Kultur Etxean.

BERRIZ antzerkia

‘Hoy puede ser mi gran día’ (Teatro en Vilo), 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO musika

‘Mozart, Nannerl eta lagunak’ (Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren Ganbera Seikotea), 19:00etan, San Agustin kultur gunean.

DURANGO ekitaldia

V. Emakumeen Lasterketa, 16:30ean, Ezkurdi plazan.

Azaroaren 28an

BERRIZ bertso musikatuak

Bertso saio musikatua, 12:30ean, Kultur Etxean. Bertsolariak: Miren Amuriza, Iruri Altzerreka, Oihana Bartra, Alaia Martin eta Berrizko Bertso Eskola, Musikariak: Gari Otamendi eta Ixak Arruti. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal.

DURANGO antzerkia

‘Hoy puede ser mi gran noche’ (Teatro in Vilo), 19:00etan, San Agustin kultur gunean.

Azaroaren 29an

IURRETA berbaldia

‘Emakume musulmanak eta janzkera. Estereotipoak hausteko begirada’, 18:00etan, Kultur Etxean.

Azaroaren 30ean

BERRIZ berbaldia

‘Emakumeen aurkako indarkeria artearen historian’, 19:00etan, Kultur Etxean.

IURRETA berbaldia

‘Ziberindarkeria matxistak eta honen aurkako erresistentziak eta estrategia ziberfeministak’, 18:30ean, Kultur Etxean. Hizlaria: Estibaliz Linares (Deustuko Unibertsitatea).

Abenduaren 1ean

ZORNOTZA berbaldia

‘Nola hitz egin gure seme-alabekin sexualitateari buruz’, 18:00etan, Zelaieta Zentroan.

Abenduaren 2an

BERRIZ berbaldia

‘Dorotea’ ipuin ilustratuaren aurkezpena (Amaia Egidazu), 18:30ean, Kultur Etxean.

DURANGO liburu aurkezpena

‘Dena ametsa den irudipena’ (Leire Vargas idazlea), 19:00etan, Txoria Nuen Maite tabernan. Oihana Arana eta Erika Lagoma arituko dira bertsotan. Gai jartzen, Miren Amuriza.

DURANGO antzerkia

‘Karrikan’ (Karrikan antzerki taldea), 19:00etan, San Agustin kultur gunean.

Abenduaren 3an

BERRIZ antzerkia

‘Tarzan’ (Mar Mar Teatro), 17:00etan, Kultur Etxean.

ELORRIO antzerkia

‘Amua’ (Axut konpainia), 20:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA antzerkia

‘Birritan bortxatua’ (Laguntzen antzerki konpainia), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Monster Family 2**

barikua 26: 17:00

domeka 28: 17:00

:: Durango ZUGAZA

• **La hija**

barikua 26: 19:30/22:00

zapatua 27: 19:30

domeka 28: 19:30

astelehena 29: 18:00/20:15

martitzena 30: 18:00/20:15

eguztiena 31: 18:00/20:15

• **La casa Gucci**

barikua 26: 20:00

zapatua 27: 18:00/21:00

domeka 28: 18:30

astelehena 29: 19:00

martitzena 30: 19:00

eguztiena 31: 19:00

• **Encanto**

barikua 26: 19:30/22:00

zapatua 27: 17:00/18:00/21:00

domeka 28: 17:00/19:30

astelehena 29: 18:00/20:15

martitzena 30: 18:00/20:15

eguztiena 31: 18:00/20:15

• **Apaiz Kartzela**

zapatua 27: 22:00

• **Il Trovatore (opera)**

eguztiena 2: 19:30

• **Loquillo**

(kontzertuaren proiektzioa)

eguztiena 2: 20:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **Pleasure**

zapatua 27: 20:00

domeka 28: 20:00

astelehena 29: 20:00

• **Maya erlea: urrezko esfera**

domeka 28: 17:00

:: Zornotza ARETOA

• **Pan de limón con semillas de amapola**

zapatua 27: 20:00

domeka 28: 20:00

astelehena 29: 20:15

• **Way Down**

domeka 21: 20:00

• **Ron da error**

zapatua 27: 17:00

domeka 28: 17:00

• **15 horas**

martitzena 30: 20:15

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

> anboto

Aurrez izena eman beharko da Durangoko Azoka bisitatu eta Ahotseneako kontzertuak ikusi ahal izateko

Egunean bost txanda egongo dira Landako Gunea bisitatzeko; Azokaren webgunean eman beharko da izena

DURANGOKO AZOKA • A.M.

Egungo osasun egoerara egokituriko neurriak hartuta egingo da 56. Durangoko Azoka. Aurtengo edizio honetan, Azokak adar bi izango zituela adierazi zuten, eta apostuari eutsiko diote: abenduaren 4tik 8ra, Landako Guneak zabalik edukiko ditu ateak, baina, sartzeko, kulturazaleek aurretik izena eman beharko dute Durangoko Azokaren webgunean. "Erabakia hartu genuenean, bagenekien testuingurua aldakorra izango zela, baina pozik eta kementsu gaude Durangoko Azokako edizio berria aurrera eramateko", azaldu du Beñat Gaztelurruia Gerediagako kudeatzaileak. Durangoko Azokaren webgunean eman beharko da izena, azaroaren 29tik aurrera. Egun horietan bost txanda antolatuko dituzte Landako Gunea bisitatzeko, 10:00etatik 20:00etara bitartean, eta aurretik izena eman beharko da; guztira, ordu eta erdiko bisitak egin ahaliko dira eta une berean ez dira 1.200 lagun baino gehiago batuko bertan.

Ordu eta erdiko tarteen ondoren, gunea hustu egingo da. Internet bidezko denda ere aurkeztu dute, eta ekitaldiak streaming bidez zabalduko dituztela ere esan dute. Pandemiak baldintzaturikoa izango bada ere, Gaztelurruia itxaropentsu agertu da. Izan ere, 219 erakusmahai batuko dira Landako Gunean. Bertan, 900 nobedade aurkeztuko dituzte: 733 liburu, 143 disko, 37 aldizkari eta 77 bestelako.

Landako Gunean ez ezik, beste guneetan ere hartuko dituzte osasun egoerara egokituriko neurriak. Horrela, Plateruenean kokatuko den Ahotseneako kontzertuetara joateko ere aurrez izena eman beharko da. Guztira, 50 kontzertu egingo dituzte bertan. Horrez gainera, bertan ez da ostalaritza zerbitzurik eskainiko, eta ezingo da ez janari-edaririk kontsumitu ez sartu. Kontzertuetarako sarre-rak www.durangokoazoka.eus webgunean erreserbatu ahaliko dira, doan, azaroaren 29tik aurrera.



Egunean prentsa agerraldia egin zuten 56. Durangoko Azokako egitaraua aurkezteko.

900 nobedade aurkeztuko dituzte 56. Durangoko Azokan; 219 erakusmahai egongo dira

Arduraz jokatzeko deia

Durangora joateko asmoa duten kulturazaleei osasun neurriak errespetatzeko eskatu die Durangoko Udalak. "Durangoko Azokak herri guztia barnebiltzen du, eta Durangoko kaleetan ere nahi-taezkoa da segurtasun neurriak

betetzea, guztion hobebeharrez", azaldu zuten Ima Garrastatxu Durangoko alkateak. "Azoka ez da Landako Gunea bakarrik mugatzen. Azoka Durango osoa da. Eta durangarrekiko errespetuz jokatzeko eskatzen dizuegu", gaineratu zuten.



Ezpalak.

Ezpalak taldeak 'Kolpatu topatu' diskoa aurkeztuko du Berrizko Topa tabernan

Azaroaren 26an izango da kontzertua, 18:30ean; aurten kaleratu dute 'Kolpatu topatu' bigarren diskoa

MUSIKA • A.M.

Berrizko Topa taberna kontzertuak antolatzen hasi da berriro ere. Kontzertuen itzulera honetarako, doinu eta erritmo bortitzak melodiekin batera nahasten dituen Ezpalak talde gipuzkoarra gonbidatu dute. Eñaut Gaztañagak (gitarra), Juanjo Berasainek (abeslaria), Unai Eizagirrek (baxu-jotzailea) eta Janardana Iglesiasek (bateria) osatzen dute Ezpalak taldea. Musi-

kari horiek Grises, Voltaia eta The Moths taldeetan aritutakoak dira aurretik. Ezpalak taldeak 2019ko udaberrian kaleratu zuen *Ezpalak* bere lehenengo diskoa, eta *Kolpatu topatu* horren jarraipena da. Zortzi abestik osatzen dute bigarren lan hau, eta rock doinuak nabarmendu dira honetan ere. Melodia gogorae-rrazak ere badituzte bigarren lan honetan, 90eko rock taldeen eragin nabarmena dutenak, gainera.

Kontzertu sorta

Ezpalak taldeak ekainean ekin zion bigarren lan luzea aurkezteko birari, Donostiako Dabadaba aretoan kontzertu bikoitza eskainita. Gipuzkoarrek hainbat kontzertu dute lotuta hurrengo hileetarako. Bihar, zapatua, Leitzan (Nafarroa) arituko dira; abenduan, Madrilan kontzertu bi eskainiko dituzte, bata Radio 3 irratsaioarako, eta uztailean Bilbon egiten den BBK Live jaialdian parte hartuko dute, Placebo, The Killers eta Stromae talde entzutetsuekin, besteak beste.



Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2. ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

Bere saioa irabazita, Gorka Pagonabarraga durangarra da Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalerako lehenengo sailkatua

Miren Amurizak hirugarren amaitu zuen saioa eta badu aukera finalean aritzeko; Aitor Bizkarrak zapatuan abestuko du, Galdakaoko finalaurrekoan



Gorka Pagonabarragan Etxebarriko saioan.

BERTSOLARITZA • A.M.

Gorka Pagonabarraga durangarra da Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalerako lehenengo sailkatua. Joan den asteburuan hasi zen, Etxebarrin, txapelketako finalaurrekoen itzulia, eta 529 puntugaz berak irabazi zuen saioa, eta fina-

lerako txartela. Gainera, aurreko txapelketako txapeldun Onintza Enbeitaren aurretik geratuta lortu zuen finalerako sarrera durangarrak; Enbeitak 518,5 puntu erdietsi zituen. Miren Amuriza berriztarrak hirugarren postuan amaitu zuen finalaurrekoa, 505,5

puntugaz, eta oraindino badu finalera sailkatzeko aukera. Hori bai, datozen finalaurreko bietako sailkapenen zain geratu beharko du.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finala abenduaren 18an izango da, Bilboko Bilbao Arenan

(Miribilla). Pagonabarrak lehenengo aldia izango du Bizkaiko Txapelketako finalean.

Bizkarrak, Galdakaon

Durungaldeko beste hiru bertsolari ere arituko dira beste finalaurrekoetan finalerako

txartel bila. Zapatuan, hilak 27, Aitor Bizkarra abadiñarra Galdakaoko Urreta kiroldegian arituko da bertsotan. Beragaz batera, Etxahun Lekue, Xabat Galletbeitiak, Aitor Etxebarriazarragak, Josune Aramendik eta Oihana Bartrak abestuko dute. Igor Menika arituko da gai jar-tzaile lanetan. Saioa 17:00etan hasiko da. Hirugarren finalaurrekoa abenduaren 4an izango da, Larrabetzuko frontoian. Bertan,

Aitor Bizkarra, Txaber Altube eta Eneko Abasolo 'Abarkas' ere badaude finalaurrekoetan

Durungaldeko gainerako bertsolari biek abestuko dute: Eneko Abasolo 'Abarkas' iurretarrak eta Txaber Altube abadiñarrak. Ander Elortegi, Jone Uria, Julen Arzanegi eta Nerea Ibarzabal arituko dira eurekin batera. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak COVID-19agaitik kaleraturiko azken neurrien harira, antolatzaileek adierazi dute azken saioetako segurtasun neurriak indartu egingo dituztela. Sarrerak www.bertsosarrerak.eus webgunean daude salgai.

Gai librean

Zer dugun helburu

Ez dakit txikitan inoiz “nagusitzen naizenean idazlea izan gura dut” esan ote nion amari. Ez dakit, hala-ber, idazle berba entzutean zer irudi etortzen ote zitzaidan burura garai hartan, ezta noiz hasi zen argazki hori produkzioan oinarritutako egungo sistemaren baldintzak barneratzen. Baina noizbait igaro zen idazlea “idazten duen pertsona” dela dioen definizio intuitibotik hainbat exijentzia gehigarri barnebiltzen zituen etiketa izatera. Argitalpena, esaterako. Edo munduaren errekonozimendu eta laudorioa.

Niri ere sartu zitzaidan buruan ideia hori, komertzial eta errentagarri izatean oinarritutako jardunaren definizioa, egungo sisteman gure denbora merezi duten jardura guztiak bezala. Eta, halaber, salgarria ez izatearen eta ez funtzionatzearen arteko lotura. Eta



Leire Vargas Nieto
Sortzailea

zer ari zara egiten zure denborarekin, zure bizitzarekin, probetxuzko zerbait egin beharrean inork irakurri gura ez dituen berba-sorta klixex eta baliogabeak dokumentu eragabeetan pilatzen.

Zergatik behar dugu kanpokoan onarpena, eta industria bat sostengatzen dutenena bereziki?

Baiezko bat jasotzen duzunera arte. Demagun, sari bat. Eta horrekin, bat-batean, bazara idazle.

Mila urtez lurpean egon den harri zatia ondare bilakatzen duen berberak bihurtzen du saritua idazle. Baina zergatik da horren beharrezkoa aurkitzailearen figura? Zergatik behar dugu

kanpokoan onarpena, eta industria bat sostengatzen dutenena bereziki? Eta zergatik da inoiz baino pisuzkoa goa berme hori sortzailearen identitatea hegemoniatik aldentzen denean?

Idaztea da idazle izateko lehenengo baldintza, musika egiten duena musikari eta zapatak egiten dituen zapatari izan daitekeen era berean, produzitutakoa salgai bihurtu edo armairuen goikaldeko tiraderetan gordetzeko egin. Eta sariak sariak dira, aitortzak, baina ezein sorkuntza ez da aitortzatik hasten: lanak sostengatzen du saria. Nago ez ote dugun maizegi aitortza jaso izana bera zoriontzen, haren atzekoari begiratu ere egin gabe: lan bat, norbaiten zatitxo bat gordetzen duena eta gure arreta merezi dezakeena. Sistemak irentsi duelako baino ez luke sortzaileak lanaren osteko ordaina bilatuko azken muga lez. Ez ditzagun bitartekariak helburu bihurtu.

Defentsako lanean oinarrituta eta bost gol bakarrik jasota, Abadiño futbol kluba igoera postuan dago Maila Gorenean

Iaz Ohorezko Mailatik jaitsi eta gero, maila horretara bueltatzeko bide onetik doa Gorka Morenok gidaturiko taldea

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Bizkaiko Maila Gorenean hamar jardunaldi joan dira eta Abadiño futbol kluba igoera postuetan dago, bigarren tokian. Ligako lehenengo laurdena esperantza izateko modukoa da, baina oraindino bide luzea geratzen da aurretik. Inoiz baino talde gehiago —20, guztira— eta jardunaldi gehiago dago aurten, COVIDak eraginda ligak berregituratu egin dituztelako. Partiduak Gabonetan ere jokatu dira, errege-egunean, Durangoko Azokako zubian... "Atsedean gutxi izango dugu eta denboraldia oso gogorra izango da", onartu du Gorka Moreno entrenatzaileak. "Baina azkenengo hamar jardunaldietara hor goian heltzen bagara, igoera izango dugu helburu", aurreratu du.

Morenok bost denboraldi daromatza Abadiño aulkian. Tarte horretan igoera bi lortu ditu, azkena orain denboraldi bi, Ohorezko Mailara. Iurretakok eta Elorriok jokatzeko duten Bizkaiko ligarik in-

artsuenean denboraldi bat eman eta jaitsi egin ziren iaz.

Maila galdu arren, iaztik hona taldea ez da askorik aldatu. Erregional mailako taldetik hiru jokalaririk igo dituzte: Imanol Estepa eta Kerman Zurituriza defentsak eta Peio Carro atezaina. Fitxaketak, ostera, bi bakarrik, biak Durangoko Kulturaletik: Xabi Astondoa ezker-hegalekoa eta Asier Agirre aurrelaria. Orokorrean, jokalaririk guztiak "asko jokatzeko" ari direla azaldu du Morenok, eta gustura dagoela euren ekarpenagaz. Horrez gainera, harrobiko lana azpimarratu du. "Harrobian talde asko daude eta gauza asko ondo egiten dituzte. Lehenengo taldera trebatuta heltzen dira eta oso ondo lehiatzen dute. Emaitez lan hori islatzen dute", esan du.

Hiru gol jasota 10 partidutan Abadiñoen emaitzarik onenak defentsako lanean oinarritzen dira. Hamar partidutan bost gol bakarrik jaso dituzte. Ez dago maila



Abadiño jokalariek gol bat ospatzen aurretik Astolako jokaturiko partiduko batean.

osoan Ander Cortazarrek baino gol gutxiago jaso duen atezainik. Taldearen sendotasuna erakusten duen beste datu bat: hamar jardunalditan oraindino ez dute partidurik galdu: zazpi garaipen eta hiru berdinketa.

Zaldia, sufritzen

Durangaldeko beste talde bat ere badabil Maila Gorenean: Zaldia. Zaldibarko futbol kluba jaitziera postuetan dago, baina gainerakoek baino partidurik gutxiago jokatu du, joan zen asteburukoa, Lekeitio-

ren kontrakoa, bertan behera geratu zelako. Mailari eustea garesti dago aurten. Aurreko urteetan baino talde gehiago jaitziko dira aurten, sei guztira, baina gehiago ere izan daitezke, goragoko mailetan gertatzen denaren arabera.



AITOR GARCIA IRAZABAL

Abadiño | 1996

"Apurka-apurka joan behar dugu"

Aitor Garcia partidurik borobila jokatzeko eta taldearen garaipenean funtsezko jokalaria izatearen sentsazioagaz joan zen etxera joan zen asteburuan. Abadiño 3-2 menderatu zuen Loiu Astolako, eta Gariak hiru goletan parte hartu zuen.

Taldeko bigarren gola zeurea izan zen. Gol polita, gainera.

Polita izan zen, bai. Markel Aperribaik defentsaren ginetik pasatu zidan baloia eta nik boleaz errematatu nuen.

Lehenengo goleko pasea zeurea izan zen eta hirugarrena zure jaurtiketa baten ostean jasorik aldaratze baten ondorio. Etxera gustura joateko moduko ekarpena. Bai, gustura nago eta, gainera, partidua irabazteko balio izan zuen. Garaipen garrantzitsua izan zen, aurrean dugun hilea nahikoa gogorra da eta. Hile batean zortzi partidurik ditugu eta aurkari zailen kontra.

Azkenera arte Ohorezko Mailara igotzeko borrokan ibiltzeko moduan ikusten duzu taldea?

Oraindino goiz da esateko. Goian gaude, bai, baina ezin da baieztapen segururik egin. Apurka-apurka joan behar dugu. Beharbada aurretik dugun hile gogor honen ostean hobeto ikusiko da benetan taldea zertarako kapaz den.

"Aurretik dugun hile gogor honen ostean ikusiko da benetan taldea zertarako kapaz den"

Iaz Ohorezko Mailan ibili zineten, Bizkaiko ligarik nagusienean. Goatzeko urtea zen, baina COVIDak dena aldrebestu zuen.

Benetan be! Denboraldi erdi baino ez zen jokatu, gainera. Pena da, taldeko jokalaririk gehienontzat Ohorezko Mailan jokatzeko gure lehenengo aldia zela. Esperientzia falta izan zitzaigun.



ANDER CORTAZAR MARCO

ABADIÑO | 1989

"Segurtasuna talde osoaren meritua da"

Ander Cortazar Maila Gorenean golik gutxi jaso duen atezaina da: bost gol hamar partidutan. Abadiño harrobian hezitako atezainak aurretik birritan lortu du golik gutxi hartu duen ligako atezaina izatea, eta, aurten, garaikur hori hirugarrenez lortzeko bidean da.

Helduko ote da hirugarrena?

Horixe gura dugu, baina ikusi egin behar! Ofizialki birritan lortu dut ga-

raikurra, baina Ohorezko Mailara igo ginen urtean ere neuk jaso nuen golik gutxi. Kontua da COVIDa dela eta ez zela liga osoa jokatu eta ez dela ofiziala. **Bost gol hamar partidutan; ez da edozelako estatistika.**

Pozik gaude. Segurtasun hori talde osoaren meritua da. Jokalaririk guztiak lan handia egiten dabilta eta estatistika horren ondorio dira.

"Laster baten erreleboa beharko dut. Aita izan naiz, eta lana, futbola... gauza askotxo dira"

Abadiño harrobi ona du atepetan?

Baietz uste dut. Gainera, laster baten erreleboa beharko dut. Aita izan naiz, eta lana, futbola... gauza askotxo dira, futbola ikaragarri gustatzen zaidan arren. Aurtengoa eta beste urtebete jokatu gura nituzke. Polita izango litzaiteke datorren urtea Ohorezko Mailan ematea eta iazko arantza hori kentzea. Maila badugula uste dut.

Pena bakarra alabari ezingo diozula golik eskaini.

Galtzen goazela azken minutuan kornerren bat errematatzea igo ezik, gatz (barrez). Iaz Ohorezko Mailako azken partiduan, Bermeoren kontra, errematera igo eta ia sartu nuen gola. Tira, esperantza hor dago.



Estatuko ziklistarik onenatarikoak batuko dira Abadiñon, C2 mailako proban.

Ziklo-krosa protagonista asteburuan, Garaiko eta Abadiñoko probekin

Garaiko bigarren aldia eta Abadiñoko C2 proba asteburu berean batu dituzte aurten

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO

Ziklo-kros zaleak zorteko daude. Durangaldean proba bi izango dira asteburuan: Garain zapatuan eta Abadiñon domekan. Orain urte bi, asteburu banatan izan ziren, baina aurten berean batzea lortu dute antolatzaileek. Horrela, kanpotik datozen ziklistei lasterketa bitan parte hartzeko aukera eskaintzen diete.

Garaiko ziklo-krosak bigarren aldia egingo du zapatuan. 09:00etatik aurrera, hainbat mailatan lehiatuko dira. Eliteena eta 23 urtez azpikoena 13:30ean hasiko

da, udaletxe paretik. 2,7 kilometro dituen zirkuitua iazko bera izango da, aldaketa txikiren bategaz.

Abadiñon, estatuko onenak

Matxorriren oroimenezko Abadiñoko ziklo-krosak estatuko onenatarikoak batuko ditu domekan, Muntzaratzeko landetan egindako zirkuituan. C2 mailako proba da, Elorrioko eta Laudioko C1-ekoen ostean Euskal Herrian dagoen garrantzitsuena.

Zirkuituak hiru kilometro pasatxo ditu; 200 bat metro kenduta, gainerako guztia landan da. Lehe-

nengo lasterketak 09:30ean hasiko dira. Emakumeen elite mailako lasterketa 11:45ean hasiko da eta gizonena 12:45ean.

Mailarik maila, Durangaldeko hainbat txirrindulari daude irabazteko edo aurrean ibiltzeko hautagaien artean. Esaterako, kadete mailan Berrizen eta Lepazpian garaipena lortu duten Laida Hierro eta Nahia Garcia. Mutiletan, Mikel Aranzabal kadetea eta Laudion laugarren egin zuen Oinatz Farelo juniorra nabarmendu daitezke. Nagusiei dagokienez, Jon Munitxa abadiñarra sasoian dago.

Emakumeen lasterketa bihar, helburu solidarioagaz

Izen-emateagaz lorturiko diruaren zati bat indarkeria sexista jasan duten emakumeei laguntzen dien Bizitu elkarteari emango diote, antolatzaileek jakinarazi dutenez

LASTERKETA • J.D.

Durango Kirol Taldeak antolatzen duen Emakumeen Lasterketak bosgarren aldia beteko du zapatuan. Aldarrikapenak elkartasunagaz uztartuz, aurten indarkeria sexista jasandakoei laguntzen dien Bizitu elkarteari emango diote baturiko diruaren zati bat.

Durangoko Ezkurdi plazan hasi eta amaituko da lasterketa. Lehenengo, 16:30ean, 1,6 kilometroko proba ez lehiakorra egingo dute. Parte hartzea euro bi da eta

izen-ematea egunean bertan egin daiteke, 15:30ean hasita. Ondoren, 17:00etan, 5 kilometroko lasterketa nagusiari ekingo diote. Aurten, nobedade modura, diru sariak egongo dira maila absolutuko lehenengo hiru sailkatuentzat. Horrez gainera, parte hartzaile guztien artean Dendak Bai elkartearen erosketa bonuak zotz egingo dituzte.

Fumbarri eta Jesus Oñate enpresak lasterketako laguntzaileak izango dira.



Aurreko edizio bateko emakumeen lasterketako argazkia.

Jokaldia

V. Emakumeen Lasterketa

Sei urte dira antolatzen hasi ginenetik eta urtero galdera bera askoren ahotik: Zergatik emakumeentzat bakarrik?

Atzo Indarkeria Matxistaren kontrako Nazioarteko Eguna izan zen. Emakumeen kontrako indarkeria kasuak egunero gertatzen direla ezin uka daiteke. Gizartea horren aurka bildu eta aldarri hori plazaratzeko motiboak sobera, beraz; eta moduak, milaka: elkarretaratzeak, manifestazioak, lasterketak eta abar. Badakigu gizonetzko asko daudela aldarri honekin bat egiten dutenak, baina lasterketen parte hartzea tamalez oraindik ez da parekidea generoen artean, eta guk emakumez jositako lasterketaren irudi indartsu bat nahi dugu. Kirol arloan ere gertatzen dira indarkeria kasuak. Orain dela ez asko, Euskal Herriko lasterketa batzuetan diru-sari handia-



Garazi Sampedro Arando

Mendi lasterketak

"Lasterketaren xede bat kirolean emakumeen ahalduntzea da. Izan dezagun lotsak eta konplexuak galtzeko espazio bat"

"Parte-hartzean urrun gaude parekidetasunetik, baita kirol federatuko lizentzien kopuruan ere"

goak ematen zitzaizkien mutil irabazleei neskei baino.

Urruti joan gabe, urriaren 31n Durangon atleta beterranoen Espainiako Kopa Mistoa jokatu zen eta bertan 35-85 urte bitarteko gizon-emakumeak batera lehiatu ziren. Polita izan zen. Baina orduan ere pasarte matxistaren bat ezin falta: 3.000 metroko lasterke-

taren irteera lerroan adin tarte zabalera 5 gizon eta 3 emakume zeuden eta epaileak 40 urteko emakume bati atzeko lerroan jartzeko eskatu zion, gizonak baino motelago korrika egingo zuela pentsatuz-edo. Ezjakintasuna ala matxismoa?

Poztekoa da geroz eta emakume gehiago kirolean ikustea, baina oraindik parte-hartzean urrun gaude parekidetasunetik, baita kirol federatuko lizentzien kopuruan ere. Beraz, lasterketaren beste xede bat kirol arloan emakumeen ahalduntzea da. Izan dezagun lotsak eta konplexuak galtzeko espazio bat, beldurrik barik korrika atera eta indarkeria matxistaren aurka aldarrikatzeko aukera izango duguna. Nahiko genuke laster emakumeen parte-hartzea %50ekoa izatea, baina bitartean proba antolatzen jarraitzeko arrazoiak baditugu.

DURANGALDE



Ezkurdiko kioskioa

Durangoko Ezkurdi parkeko kiskoak 120 urte beteko ditu datorren urtean. Astola aldikariak bere 6. zenbakian jaso zuenez, kioskioa 1902an eraiki zuten, herriko musika bandak kontzertuak eskaini zituzten irailan. Herriko leku "enblematiko bat" berreskuratu gura izan dute.

KO TXOKOAK ?

Elorrioko trenbide zaharra naturgune da orain

Elorrio eta Durango batzen zituen trenbidea 1905etik 1975era egon zen martxan. Amaitu ziren trenen joan-etorriak, baina herritarrek ez diote bidaiatzeari utzi. Ibiltariak eta txirrindulariek garai bateko ke beltza eta elektrifikazioa ordezkatu dituzte. Arnasgunea bilatu dute, klima larri dabilen garaiotan.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es



ABADIÑO
MATIENA: 2 Etxebizitza altua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. Argitsua. Ganbara.
114.000 € C.E.E=G



DURANGO
ZEHARMENDIETA: Berriztatua. Eguzkitsua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Bizitzera sartzeko moduan.
130.000 € C.E.E=G



DURANGO
KALEBARRIA: 2 logela. (Lehen 3), komuna, sukalde-jangela eta egongela, Ganbara. BERRIZTATUA. Bizitzera sartzeko moduan.
145.000 € C.E.E=E



IURRETA
BIXENTE KAPANAGA: 110m². Etxebizitza altua ikuspegi ederrekin. Eguzkitsua. BERRIZTATUA. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela handia. Terraza.
230.000 € C.E.E=E



DURANGO
JESUITAK: 3 logela, komuna, sukalde eta egongela handiak. Erdialdean. Ganbara. Eguzkitsua.
199.500 € C.E.E=G



ALOKAIRUAN EROSTEO AUKERAGAZ
Berriztatua. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du.
Kuota: **500 € / 99.000 € C.E.E=E**

// ETXEBIZITZAK SALGAI
DURANGO: Aramotz auzunea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Prezio ezin hobea.
DURANGO: Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea jantokiagaz eta egongela.
DURANGO: Antso Estegiz. 3 logela, 2 komun, sukalde-jangela eta egongela. Ganbara.
MAÑARIA
KIRIKIÑO KALEA: 3 logela, komuna eta sukaldea. Balkoia. Igogailua. Argitsua.

ABADIÑO
ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.
BERRIZ
ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.
BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.
ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI
GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.
IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.
//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.
ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria
ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarritzko baserria salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berriztatzeko.
MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.
MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.
DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatze.

//BULEGOAK ALOKAIKUAN
ABADIÑO
30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifa barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI
Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIKUAN
Alde Zaharrean, hainbat taimainatoko lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA ALOKAIKUAN
BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m²-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.
MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



BERRIZ
ITURRIZA: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta jantzeko gela. Balkoia eta terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua (Ekialde/mendebaldeA) Berriztatua. Igogailua egiten ari dira (ordainduta geratzen da) Leku onean kokatua, tren geltokitik gertu. Bizitzera sartzeko moduan.
240.000 € C.E.E: G negoziagarria




MUNTSARATZ
ARLOZABAL: 17 urteko antzinatasuna: Egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Argitsua (MendebaldeA). Leku onean kokatua. 15 m²-ko trastelekua. 18 m²-ko garajea. Ezin hobea.
217.000 € C.E.E: Bidean



DURANGO
KALEBARRIA: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Lehenengo solairua igogailu barik. Etxe erdiak kanpora ematen du (ekialdea) Erdialdean kokatua. Erdi berriztuta. Ganbara. ITE-a oraintsu eguneratua.
137.000 € C.E.E: E



MATIENA
TRAÑABARREN: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (MendebaldeA). ALTUA. ARGITSUA. LEKU ONEAN KOKATUA. 8 m²-ko ganbara. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.
175.000 € C.E.E: E negoziagarria



DURANGO
FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, despentsa eta komuna. Pisu altua. Etxe erdiak kanpora ematen du. (IparraldeA) Leku onean kokatua. Garaje partzelarakok aukera + 10.000 euro edota garaje itxia + 33.000 euro, etxebizitzatik bost minutura. Aukera asko. Igogailua.
195.000€ C.E.E: E Aukera



DURANGO
ANTSO ESTEGIZ: Egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Balkoia. Pisu altua. Etxe erdiak kanpora ematen du. Herrigunetik oso gertu. Instalazio elektrikoa eta iturgintzakoa berri-berriak. ITE oraintsu pasatutakoa. Igogailua.
155.000 € C.E.E: E

//DURANGO
ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Igogailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 288.000 € / E.E.Z=F**

GOIENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **135.000 € / E.E.Z=E**

KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **120.000 € / E.E.Z=E**

KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia. **230.000 € / E.E.Z=E**

SAN AGUSTINALDE: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. **200.000 € / E.E.Z=F**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitze 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

ATXONDO
ARRAZOLA ERREPIDEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **170.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**

BERRIZ
BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

BIDEGAIN KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. **210.000 € / E.E.Z=E**

IURRETA
OROZKETA AUZO: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

IZURTZA
ELIZALDE AUZO: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

MATIENA
TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Ganbara. **175.000 € / E.E.Z=E**

OTXANDIO
ARTEKALEA KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **60.000 € / E.E.Z=G**

ALOKAGAI
Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

GARAJEAK SALGAI
Durangon eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuagaz.

BERRIAK DURANGO
BARRENKALE KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta komuna. **90.000 € / E.E.Z=E**

ZALDIBAR
3 PISUKO ETXEA. 4 logela, sukaldea, garbitokia, egongela eta 3 komun. Terraza. Lorategia, txokoa garajea eta trastelekua. **525.000 € / E.E.Z=E**

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak

BARIKUA, 26 · 09:00-09:00	BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
09:00-22:00	09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	ASTELEHENA, 29 · 09:00-09:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	DE DIEGO Intxaurrondo 22. - DURANGO
ZAPATUA, 27 · 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO	09:00-22:00
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-13:30	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	MARTITZENA, 30 · 09:00-09:00
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	09:00-22:00
SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
DE DIEGO Intxaurrondo 22. - DURANGO	EGUAZTENA, 1 09:00-09:00
FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - ABADIÑO	MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO
JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	09:00-22:00
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-14:00	EGUENA, 2 · 09:00-09:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
09:00-22:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
DOMEKA, 28 · 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA



Zorionak, **Ibon (871. alea)**!
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuei egokitu zaizue. Oparia eskuratzeko txartela gura duzuenean jaso dezakezue lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



Zorionak, **Elixabete**, zeure hamar-garren urtebetetzean etxeko guztien partez. Ondo pasa eta gozatu zure eguna, familiarekin eta lagunekin. Besarkada eta musu haundi bat.



Zorionak, **Ametz**, etxekuon partez. 6 urte azaroaren 25ien. Segidu betiko moduen, errebelde! Hi haz hi tipue!



Azaroaren 24an **Yosu Echevarriak** urteak bete zituen. Bazkari bat zure kontu. Animo, txapeldun!



Zorionak, **Ekai**! Muxu pila Gasteizko aitite-amamen, osaben eta birrama-ma Natiren partez, guztien partez. Mila musu potolo.



Abenduaren 1ean **Manexek 6** urte egiten ditu. Zorionak Elorrixotik gure etxeko futbolista txikiari. Segi horrela.



Albert Diatta durangarrak azaroaren 26an 24 urte egiten ditu. Mila esker urte hauengatik eta egun on-ona pasa. Eder, Christian eta Onom.



Azaroaren 27an **Milagros Ansoresguik** urteak egiten ditu. Ondo ospatu zure senarrarekin eta Zuriñerekin.



Abenduaren 2an **Luciak**, Biak-bat kirol klubeko gure futbolistak, 13 urte egingo ditu. Zorionak eta egun ona pasa. Musu bat etxekoen partez.



Gozatu zure eguna zuk ondo dakizun bezala, ez dadila jan-edana falta! Gora gure kuadrillako gauaren erregina, eta aupa Athletic! Zorionak, **Andrea**! Maite zaitugu! Zure kuadrillako tiabuenak.



Zorionak, **Unax**! 8 urte! Egun ederra pasau familixa guztixen partez!



Zorionak Gerediagako artzai handiari, ia urtegune argazkixen bezain ondo pasetan dozun eta kalimotxo batera gonbidatzen gaittuzun. Zorionak eta 29 mosu potolo.

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 8° / 3° 🌧️	ASTELEHENA 🌧️ 9° / 4° 🌧️	EGUAZTENA 🌧️ 11° / 6° 🌧️
DOMEKA 🌧️ 6° / 3° 🌧️	MARTITZENA 🌧️ 11° / 6° 🌧️	EGUENA 🌧️ 9° / 7° 🌧️



Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403



MAKALLAU SALTSAN



saltsan®
KONFIANTZAN

MAKALLAU SALTSANen bakailaorik onena eta osagai guztiak eskaintzen dizkizugu zure lapikoak arrakasta handia izan dezan: piper txorizeroa, baratxuri gorria, kalitate handiko olioak etab.
Bakailao kozinatua ere aurkituko duzu, mota guztietan: pil-pil, bizkaitarra, ajoarrieroa, kroketak, bakailaoz betetako piperrak, etab.
Eta ez galdu Nafarroako kalitate-labeldun kontserbako produktuak: Zainzuriak, orburuak, piperrinak, etab.



Enkarguak egiteko edo informaziorako, **telefonoz** edo **whatsapp** bidez gugaz kontaktuan jarri: **688 773 205 / 688 734 329**

"Makillajeak sormena beste modu batera esploratzeko aukera eman dit"

Aridane Elgezuak karakterizazioak egiten ditu azalerako akuarela bereziak erabilita, eta TikTok-en eta Instagramen bitartez erakusten ditu berak sorturiko makillaje artistikoak



Aridane Elgezia Otero

Karakterizazioak egiten ditu
DURANGO | 2000

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Aridane Elgezuak artista autodidaktatzat du bere burua eta argi du 'body painting'-ak sormena garatzeko bide berri bat zabaltzea. Konfinamenduan hasi zen makillaje artistikoaren munduan murgiltzen, eta probak eginez ikasi du. Makillajea zaletasuna da berarentzat, eta dantza pasio. Aurten, Arte Eszenikoak eta interpretazio erdi-maiako gradua ikasten hasi da Malagan.

Karakterizazioak sortzerako orduan, zein prozesuri jarraitzen diozu?

Paper zuri batean neure aurpegia margotzen dut lehenengo eta, gero, egin gura dudaren bozeto txiki bat marrazten dut. Karakterizazioaren arabera da, baina bularraldetik

hastea gurago dut, eta aurpegiagaz amaitu. Lehenengo, atzealde egiten dut, eta gero detaileekin jarraitzen dut: irudia arkatx zuri batez marrazten dut, erraz lau-

Bularraldetik hastea gurago dut nik, eta aurpegiagaz amaitu. Lehenengo, atzealdea egiten dut, eta gero detaileekin jarraitzen dut

sotzen delako, erraz kamuflatzen delako. Gero, atzealdea eta itzalak margotzen hasten naiz. Irudi gutzia

delineatzen dut gero. Bularraldea amaitzean, aurpegiagaz hasten naiz. Osagarriak dira azkenak.

Zeure kabuz ikasi duzu?

Batez ere, probak eginez ikasi dut. Hala ere, badaude material batzuk inoiz erabili ez ditudanak; adibidez, makillajerako itsasgarri bereziak. Horiak zelan erabili ikasteko, Internet baliatu dut. Pazientzia handia eta eskua behar dira. Materiala ondo zaintzea ere garrantzitsua da.

Zer da zuretzat 'body painting'-a?
Zaletasuna. Gura dudalako eta gura dudanean egiten dut, eta sormena modu desberdin batean esploratzeko aukera eman dit. Eskulanak asko gustatzen zaizkion pertsona sortzailea naiz, eta, alde horretatik,

makillajeak sormena garatzeko aukera eman dit. Gainera, konfinamendua oso atsegina egin dit, lar atsegina (barrez). Makillaje bakoitzarako 6-7 ordu behar ditut, gutxi gorabehera, eta konfinamenduan asko eskertu dut karakterizazioak egitea. Gainera, konturatu naiz usate baino gauza gehiago egiteko gai naizela; guk geuk mugatzen dugu gure burua askotan. Askatasun hori ere eman dit 'body painting'-ak.

Zerk inspiratzen zaitu?

Idea asko ohean sortu zaizkit, lo hartzeko nagoela, baina lagunek esandakoekin ere sortu ditut. Eskari zehatzak ere egin ditut. Muralen bat ere egin dut. Adibidez, Van Gogh-en *Gau izartsua* koadroa egin dut. Bularraldean margotu nuen, baina aurpegia ere karakterizatu nuen.

Nire lana mihise bat margotzea lakoa da. Mihise galkor bat, makillajea uragaz badoalako, ez diolako egun bat baino gehiago eusten

Zein izan da egin duzun lanik gaxena?

Tximeletarena. Lehenengoetarikoa izan zelako. Osagarriak zituen eta erabilitako material batzuk lehenengoz hartu nituen. Bekainak estaltzen nituen lehenengo aldian zen.

Pentsatu duzu inoiz gorputz osoa margotzea?

Bai, baina boluntario bat beharko nuke. Ondo antolatutako zerbait izan beharko litzateke, diseinu on batez, denboragaz. Pertsona bigaz mural bat egitea ere pentsatu dut.

Zein erreakzio sortu ditu zure lanak?

Harridura. Niretzat mihise bat margotzea lakoa da. Mihise galkor bat, makillajea uragaz badoalako, ez diolako egun bat baino gehiago eusten. Askotan pena handia ematen dit makillajea kentzea, hainbeste denbora eman eta gero.

Ogibide bihurtzea gura zenuke?

Eszenatokia gustatzen zait, kameraren aurrean egotea, ez atzean. Makillatzen dutena izatea gustatuko litzaidake. Gainera, makillaje lana gutxietsita dago.

Lauhortza

Markel Onandia
Txabarri
Kazetaria



Ibai gazia

Atzeritarrekin hizkuntza praktikatzeko programa batean eza-gutu nuen Silvestre, nire laguna, 2015ean. Kamerundarra zela azaldu zidan, lan bila etorri zela, eta euskara ere ikasi gura zuela. Hasieran ez nekien hizkuntza bakarrik ez, eskuak ere behar zituela, itolarritik salbatzeko eskuak.

Kontatu zidan urte batzuk lehenago bere andrea hil egin zela, eta ume baten aita zela. Aurrera atera ezinda, erabaki latz bat hartu zuela: semea familiagaz utzi eta Europara abiatzea, bizia desertuan eta itsasoan arriskuan ipinita. Lehen saiakeran poliziek harrapatu eta Kamerunera deportatu zutela; bigarrenetan hobeto atera zitzaioela, eta Euskal Herrian bide bat egin gura zuela.

Gure solasaldiek aurrera egin ahala, bere egoera okertzen joan zen. Ezin zuen alokairua ordaindu. Paperak lortzeko lan bat edukitzea eskatzen zioten, eta lan egiteko paperak. Zirkulu pozoitsua. Egoera asko larritu zen 2017an, Espainiako Gobernuak mezu bat jaso zuenean: kanporatzeko agindua. Deportatua izan zenez, hemen egonda legea urratzen ari zela zioten. Hondoratu egin zen. Malko artean berba egin genuen.

Amets Arzallusek Anboto-n dio migratzaileen inguruko kezka konkretzioa hartzen duela, minberatzen zaituela, harremana duzunean. Nik belarrondokoa hartu nuen lagun kamerundarra ezagutzean.

Zorionez, borroka askoren ostean Silvestre hobeto dabil; lanean, eta semea ekartzeko esperantzan. Ametsen elkarriketa irakurtzen nabilela, mugan migratzaile bat hil dela dio irratia. Beste bat. Eta agintariak geldi. Bidasoa ibai gazia da, Mediterraneoaren antzera, malkoen antzera.

Zentzuz erosi.
Ondo informatu zaitez. Ezagutu zure eskubideak.
Baztertu estereotipoak.

Zeu zara zure influencer onena.
#KontsumitzenJakin

kontsumoBIDE
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**
TIPIKAKO, MERKATUTZA ETA KONTSUMO SAILA DEPARTAMENTO DE TIPIKAKO, COMERCIO Y CONSUMO

kontsumoBIDE
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

